



**Esp. kodea:** 2023KKUL0046  
**Titularra:** LORE GAZTEAK DANTZA  
TALDEA

**Gaia:**  
**Hasiera data:** 2023/09/18

## Agiria

Arrasaten 2023ko urriaren 16an

### LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA ETA ARRASATEKO UDALAREN ARTEKO ZERBITZU HARREMANAK ERREGULATZEKO DOKUMENTUA

Alde batetik MAIDER MORRAS AZPIAZU Alkatea Arrasateko Udalaren izenean.

Bestetik, Iñaki Barrutia Roa, NAN zbkia 58007190V Lore Gazteak Dantza taldea Kultura elkartearen izenean

Alde biek agiri hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

#### **ADIERAZTEN DUTE:**

1.- Lore Gazteak dantza taldeak azken berrogeita hamar urte luze hauetan lan itzela egin du Arrasaten, euskal dantzak irakasteko, gordetzeko, zabaltzeko eta berritzeko, bai eta euskal dantzen zaletasuna sustatzeko, nahiz Arrasaten errotutako euskal folklore proiektu berrietan parte hartzeko ere, gainerako euskal musika eta dantza taldeekin batera elkarlanean arituta.

2.- Arrasateko Udalak euskal kultura tradizionala eta folklorea gorde eta zabaltzeko dituen helburuen artean euskal dantzak leku berezia du.

3.- Azken urteotan Lore Gazteak dantza taldeak urtean zehar egitarau egonkorra gauzatzeari eutsi dio, besteak beste, ekimen nagusi hauei lotuta:

- Haur, gaztetxo eta helduen taldeak, sortu, mantendu eta garatzea
- Euskal Herriko dantzak ikastaro bidez zabaltzea.
- San Juan jaietan parte hartzea: Haurren eguna, Errementari dantza, San Juan eguneko Agurra eta San Juan zortzikoa eta Soka dantza, ekintzen bidez.
- Udalaren ekintza ofizialetan parte hartzea.
- Santamas egitarauan: kalejiran parte hartzea eta txerri dantza eta larrain dantza kaleratzea; bai eta Olentzero egunaren inguruko ekintzatan jardutea ere.

4.- Arrasateko udalak babes ekonomikoa eman izan dio Lore gazteak dantza taldeari aurreko puntuan zehaztutako ekintzak burutzearren. Laguntza horiek arautu eta ordura arte barreiatuta zeuden ekintzetan elkarlana finkatzeko 1998an urtean hitzarmena sinatu zuten Udalak eta dantza taldeak. Hitzarmen hori ez da urtez-urte luzatu, bai ordea 2013tik aurrera, eta borondate horri eutsi nahi diote alde biek, Udala eta dantza taldearen arteko elkarlana arautzeko. 2016tik aurrera, baina, zerbitzua gauzatzeko modua aldatu da. Burututako ekintzen truke Udalak ordainduko ditu fakturak Lore Gazteak dantza taldea kultura elkarteak aurkeztutakoak, dokumentu honetako klausuletan zehaztutako kopuruen arabera.

<b>Kodea</b>	AG23/00009	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón	
<b>Data</b>	2023/ira./18	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAZHWK.Q.G4MF	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAZHVKQ.G4MF">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAZHVKQ.G4MF</a>			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2023KKUL0046

Titularra: LORE GAZTEAK DANTZA  
TALDEA

Gaia:

Hasiera data: 2023/09/18

Hau guztia dela eta, alde biek bat etorri dira dokumentu hau sinatzeko, honako klausulen arabera:

#### KLAUSULAK:

**Lehena:** Arrasateko Udalak Lore Gazteak dantza taldea Kultura elkarteari 2023 urtean 5.750 euro ordainduko dizkio bigarren klausulan zehaztutako ekintzatan parte hartu edota antolatzearen, horretarako, aldez aurretik, eta 3.klausulak zehaztutakoaren arabera, beharrezkoak diren fakturak aurkeztu eta gero.

**Bigarrena:** 2023 urtean Lore Gazteak dantza taldeak honako jarduerak burutuko ditu:

A) **Haur, gaztetxo eta helduen taldeak** entsegu eta barne irakaskuntza bidez mantenduko ditu, eta hauei dagozkien material nahiz jantzi edota arropen gastuak hartuko ditu bere gain taldeak. Halaber, Udalak dantza taldeari lagata dion lokalari dagozkion funtzionamendu eta konponketa txikien gastuak ere bai.

#### B) Jaietako partaidetza:

1.- Lore Gazteak dantza taldeak Haur dantzarien eguna antolatuko du Ekintza honek San Juan jaietako aurrekontuaren kontura aparteko finantzazioa izango du eta jaiaren antolaketa zehatzerako dagoen diru zuzkidurara moldatu beharko da.

2.- Lore gazteak dantza taldeak 2023ko San Juan egitarauaren barruan

– San Juan egitarauaren barruan honako ekintzatan hartuko du parte:

– ekainaren 23an egingo den Errementari Dantzan.

– ekainaren 24an San Juan egunean eguerdiko 12ak aldera bikote batek Agurra eta San Juan zortzikoa dantzatuko du Herriko Plazan.

– ekainaren 26an dantza taldeak dantza emanaldia eskainiko du

3.- 2023ko abenduaren 22an Santamas egunean, antolatu ohi den kalejiran nahiz Txerri dantza eta Larrain Dantza ekitaldietan parte hartuko du.

4.- Abenduaren 24an Olentzeroren inguruan antolatzen diren ekintzatan jardutea (Txoronpio eta Txoronpiaren goizeko kalejira eta Olentzeroren irteera, Herriko plazan izan ohi den azken ekitaldia barne)

C) **Ekintza Ofizialak.** Lore gazteak dantza taldeak urtean gehienez ere hiru aldiz parte hartuko du udalak deitua ekintza ofizialetan, besteak beste, Arrasateko Akordeoi lehiaketako harrera ekitaldian. Aurreikusi gabeko ekintza horretarako, azken orduko ezusterik ez bada behintzat 15 eguneko aurrerapenarekin adieraziko da.

**Hirugarrena:** Adostutako diru kopuru hau horrela ordainduko du udalak:

1.- 2.875 euroko 1. ordainketa, agiri hau sinatu eta gero, faktura aurkeztutakoan.

2.- 2.875 euroko 2. Ordainketa, 2023ko abenduan faktura aurkeztu eta gero.

<b>Kodea</b>	AG23/00009	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>Data</b>	2023/ira./18	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAZHWK.Q.G4MF
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAZHVKQ.G4MF">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAZHVKQ.G4MF</a>		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





**Esp. kodea:** 2023KKUL0046

**Titularra:** LORE GAZTEAK DANTZA  
TALDEA

**Gaia:**

**Hasiera data:** 2023/09/18

**Laugarrena:** Lore Gazteak dantza taldeak kaleratzen dituen kartel edota gainerako inprimaki eta abarretan, nahiz jendaurrean edota hedabideen aurrean egiten dituen agerraldietan, babesleen artean Arrasateko Udalaren izena eta logoa adierazi beharko ditu.

**Bosgarrena:** Bigarren klausulan adierazitako jarduera zerrenda ez da itxia eta beste ekintza batzuk ere elkarlanean antolatu eta finantzatzeko aukera izango da, alde biak bat etorriz gero.

**Seigarrena.** Indarraldia. Dokumentu honen indarraldia 2023ko abenduaren 31 artekoa izango da.

Alde biek dokumentu hau bikoiztuta sinatu dute

LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA

ALKATEA

<b>Kodea</b>	AG23/00009	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>Data</b>	2023/ira./18	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAZHWK.Q.G4MF
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAZHWKQ.G4MF">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAZHWKQ.G4MF</a>		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitex webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			

